

CORNIÓN EN IPAR-EKIALDEKO PIOLETEN BILA

Europako mendiak hiru mendigunetan banatuta daude, Ekialdekoa edo Andara, Erdialdekoa edo Urrieles eta azkenik, Cares eta Sella ibaien artean kokaturik dagoen Mendebaldekoa edo Cornión. Gailurren izenen artean ere badaude berezitasunak. Alde batetik, itxura nabaria eta gailur almenaduna dutenak "Torres" deitzen dira, bai Asturiasen zein Leonen ere, Torre Cerredo, Torre del Torco eta Torre de Santa María esaterako; bestalde, hedadura handiko hormak izan eta beraien handitasunagatik zirrara eragiten dutenak "Peñas" deitzen dira, hala nola, Peña Santa, Peña Bermeja edo Peña Beza; eta azkenik, larreak dauden eremu malkar eta gorabeheratsuetan erreferentzia bezala balio duten tontor biribilek "Cabezas, Porras edo Cuetos" izena hartzen dute, esaterako, Cabezo Lleroso, El Cuetón eta Cabeza Llambría.



Proposamen honetan agertzen direnak, azken multzo honetakoak dira. Ez dira mendiguneko gailurrik garaienak, baina badute beren lilura ere, kokapena eta gainetatik eskaintzen dituzten ikuspegiak zoragarriak baitira. Horregatik, Europako mendiekin maiteminduta gaudenontzat oso interesgarriak dira. Urte asko daramatzagu Europako mendietara joaten, eta normalean egiten den bezala, hasieran gailur ezagun eta garaietara igotzen hasi ginen (Cerredo, Urriello, Peña Santa...), baina oso interesgarriak diren beste inguru batzuk daudela jakin eta ezagutzen joan gara, hain ezagunak ez diren beste tontor batzuk, kanal malkartsuak, baita piolet ezezagunetara eramaten gaituzten aspaldiko artzain-bide eta artegiak.

Ez dira mendiguneko gailurrik garaienak, baina badute beren lilura

Ibilaldi hauetan erabili ditugun bideak erabat desberdinak izan dira. Nahiz eta geografikoki oso gertu egon, gure asmoa ez da izan hirurak toki beretik igotzea. Bigarren ibilaldia, Jascalera doana bide arrunta dela esan daiteke, baina beste biak ez dira ohikoak. Ca-

bezo Llerosora egin duguna oso gogorra da eta Europako mendietan oso ohituta dagoen jendearentzat bakarrik gomendatzen da. Kontuan hartu behar dugu gero eta artzain gutxiago dabilela artegietan eta bideak galtzen ari direla. Bestalde, goiko parajeetan murgildu eta gero, kontu handia izan behar da behe lainoarekin, inguru hauetan oso azkar eta astotan hedatzen baita. Eguraldi aproposa eta baldintza egokietan, gure barnean betirako geratuko diren esperientziak bizitzeko aukera emango digute mendi eder hauek.

● CABEZO LLEROSO (1798 m) SAIGU ETA FUENTES DE RAMA KANALETATIK.

Cabezo Lleroso, Cabrales kontzejuaren gainean amiltzen diren haitz eta zulo, artegi eta belardiz inguratuta dagoen mendi handi bat da. Cornióneko ertz honetako garaiena da, eta horma handirik ez badu ere, bertara heltzeko ibilbide guztiak luze eta neketsuak suertatzen dira. Gutxienez hiru abiapuntu daude igotzeko: La Molina herria Casaño ibaiaren ondotik, La Trapa (Puente Poncebos) Caresen ertzetik eta Covadonga gainean dagoen Ercina lakutik. Aurrez saiakera bat eginga genuen La Molinatik, baina negua izanik, goian elurra zegoenez eta



TESTUA ETA ARGAZKIAK



Izaskun "Pitxintxu"

(Elgoibar, 1956) eta

Jose Inazio "Upai"

(Elgoibar, 1957)

Ogibidez dendaria Izaskun eta irakasle lanetan dabil Jose Inazio. Gaztetan, Euskal Herriko mendien barna ibili eta gero, Pirinio eta Europako mendietako hamai-kita gailur eta bide ezagutu dituzte. Iberiar penintsula, Alpeak, Atlas mendiak, Kilimanjaro, Andeak, Himalaia eta Patagoniako zenbait gailur eta trekking ere burutu izan dituzte.

argi-orduak gutxi geratzen zirenez, ez ginen tontorrera heldu. Hala ere, ia 1500 metroko igoera oso polita egin genuen, Ceribios eta Brañarredonda bezalako artegiak eta Casarño ibaiaren zintzurra ezagutuz.

Gaurko honetan, Cares ibaitik gora egingo dugu. Hemen dauden kanal batzuk ezagutzen genituen aurretik, Piedra Bellida, Estorez, Uraren kanala, Bobias, Culiembro, Trea... Beraz, prest daukagu burua Saiguko amildegietatik igarotzeko. Gaur, Juan laguna izango dut alboan. Picoseuropa.net-eko foroan hainbat erreportaje aztertu ditugu eta gezurra badirudi ere, hortik igotzea po-

sible dela ikusi dugu. Beraz, goizeko Setan etxetik irten ondoren, 8etan prest gaude La Trapan. Hasieran, Cares ibaiaren ibilbide aski ezaguna daukagu eta hankak berotu eta burua argi izateko egokia gertatu zaigu. Saigu txabolara heldu, gorantz begiratu eta lurreratze hori ikusi dugunean, zalan-tza guztiak berriro agertu zaizkigu. Posible izango ote da? Eguraldi ona lagun gorako bidea hartu dugu. Hasieran, legartzaren eskuinean dauden belardietatik goaz, baina gero hartxingadira sartu eta harrizarrak baliatuz eta eskuak erabiliz, aldapa gainditzeko ahalegindu gara. Bat batean, Saiguko

kobazuloa gure ezkerrean ikusi dugu eta bertan, iraganean erabili izan zutenaren az-tarnak ikusi ditugu.

Bertara heltzeko ibilbide guztiak luze eta neketsuak suertatzen dira

Hala ere, gorantz begiratu eta ikusi dugunak ez gaitu lasaitu; harkaitz bloke handiak daude gure buruen gainean, eta badirudi gu heltzeko zain daudela gure gainera erortzeko baimen eske edo. Isilik, tentsioaren seinale, hurbiltzen



Pico Llucia eta Cabrones-Cerredo.



Ikuspegia zabaldu da, Saigu, Ondón, Cuetón, Lleroso,...

hasi gara eta ezker aldean agertzen diren belardi batzuetara ihes egin dugu. Belardi hau oso aldapatsua da, baina eskuen laguntzaz lortu dugu hormaren azpiko aldera hurbiltzea. Orain, "sedoak", burdinazko ferra moduko batzuk aurkitu behar ditugu. Intuizioak funtzionatzen du eta harritzan gora egin ondoren, hara non dauden. Arandanales *sedoetan* gaude eta konfiantza handia ema digu aurkikuntza horrek. Ferra hauek harkaitzean daude sartuta eta burdin hari bat dute zintzilik. Gaietan dauden belardietara igarotzeko eta pasabidea finkatzeko Rafael izeneko artzain batek ipini zituen. Orain dela gutxi arte etortzen omen zen inguru hauetara. Hori bai bizimodu gogorra!

Sedoak gainditu eta behearen begiratzean, sinestezina gertatu zaigu nondik igo dugun ikustea. Caresaren beste aldean Erdiko mendiguneko tontor eta kanal ezagunenak ditugu begi-bistan, Cabrones, Cerredo, Neverón de Urriello edota Sabugo eta Uraren kanalak beste batzuen artean. Pozik gaude, nahiz eta oraindik beste kanal bat falta zaigun goiko partera irteteko. Hemendik gora, Fuentes de Rama kanalean sartu gara. Hau etzanagoa da eta hartxingadiz eta belardiz osatuta dagoenez hobeto igotzen da. Hartxingadiko toki batzuetan ur xirripak sortzen dira. Horregatik izango al da kanalaren izena? Erantzunak bilatzen hasi orduko, bi mundu bereizten dituen harresira heldu gara. Harresi hau, behean utzi dugun inguru arriskutsuetara abereak gerturatu ez daitezten eraiki dute. Gutxi geratzen zaigu Horcada de los Bueyes-era heltzeko eta lepora heltzean, idiek baino, behiek eman digute ongietorria.

Orain, Erdiko mendiguneaz gain, Mendebaldeko tontor asko eta asko agertu zaizkigu, Peña Santa denen gainetik. Cares ibaia kilometro bat beheago dago, baina gu lau ordu luzez egon gara bertikaltasun horretan sartuta.

Cabezo Lleroso gertu daukagu, ezkerrean Berresna artegia ikusi dugu, kobazulo handi batek babestuta, eta gailurrean, berriz, pioleta. Gertu ditugu, Cuetón, Jascal... eta urrutiago, baina begi-bistan, Peña Santa, Torre de los Traviesos, Torre Santa María, Urriellu... hasieran aipatutako Dorreak, "Peñas"-ak eta "Cabezas"-ak.

Hartxingadiko toki batzuetan ur xirripak sortzen dira

Jaisteko, Camarmeñara doan bide arrunta erabili dugu, baina hala ere ez da jende asko etortzen hona gora. Hasieran, eremu konplikatu dugu, zulo eta harkaitz ugari beteta, Becena artegira jaitsi arte. Noizean behin, mugarrin bat agertzen da, baina ez dago biderik eta oso adi ibiltzeko ingurua da, batez ere behe-lainoa sartzen denean. Becenara heldu ondoren, maiz desagertzen den bidezidorra agertu da eta bertatik Ondón artegi ederrera jaitsi gara. Bertako txabolek eta Urriellu eta Caresaren gainean dauden gainontzeko gailurrek osatzen duten argazki ederragatik oso ezaguna da toki hau.

Bertatik, ezkerrean hartu behar da, Bobias kanalean sartu eta segidan Camarmeñara jaitsi. Malda handia du, baina bidezidorra nabaria da eta gainera ezaguna da guretzat, aurretik igo eta jaitsita daukagu eta. Esmenadoiro txabolek igaro eta herrira heldu baino lehenago, ezkerreko hormetan, kobazulo handi bat eta bertako horman landutako *sedo* dotore bat ikusi dugu. Caresetik gora abiatu garenetik ez dugu beste inor ikusi Camarmeñara heldu arte. Camarmeñatik La Trapa jaitsi gara, Cares ibaia oinak eta gorputza freskatzeko asmoz eta, nola ez, gorputzari hainbeste behar duen hidratazioa eskaintzeko.

FITXA TEKNIKOA

ABIAPUNTUA: **La Trapa** (Puente Poncebos), Arenas de Cabralesetik 5 km-ra.

DESNIBELA: 1600 m gora eta beste hainbeste behera.

ZAILTASUNA: **Zaila.** Ez du eskalatzeko pausurik, baina bai trepadak eta eremu zailak. Careseko beste kanalean ohituta dauden mendizaleentzat gomendatua, batez ere igoera. Jaitsi dugun tokitik igotzea errazagoa da, nahiz eta desnibel berdina izan. Ondón artegitik gora da zailena orientatzeko. Behe-lainoarekin ez dira toki oso gomendagarriak.

DENBORA: 5-6 ordu La Trapatik gailurrera igotzeko eta 4 bat jaisteko.

● EL JASCAL (1724m) ERCINA LAKUTIK.

Jascal oso gertu dago Cabezo Llerosotik, baina ibilbide banandua egin nahi dugu. Horretarako, bide arruntena eta desnibel txikiena duena erabiliko dugu. Zailtasun teknikorik ez badu ere, gailurra urruti dago, eta "ondo nabigatzen" jakin behar da. Gainera, inguru hauetan guztietan bezala, adi ibili behar da behe-lainoarekin. Covadongatik gora igo eta Ercina lakuko aparkalekuan gaude goizeko 8:30ean. Lehenbiziko urratsak lakuertzeko zelaietatik eman ditugu, baina Ariora doan bidea eskuinean utzi eta ezkerrean dagoen lepo txikia hartuz jo dugu. Hortik La Llomba artegira jaitsi eta Belbinera doan pista jarraitu dugu. Hemendik, nahiz eta oraindik urruti egon, begi bistan daukagu Jascal. Belbin, Cornióneko artegi ederrenetakoa da; txabola gehienak berreraikita daude eta eguzki panelak ere badituzte, gainera, oraindik zenbait artzainek gazta egiten jarraitzen dute. Irudi dotorea eskaintzen du txabola multzoak.

Inguru hauetan guztietan bezala, adi ibili behar da behe-lainoarekin

Hemendik aurrera, eta tarte txiki batean, "Ruta de la Reconquista" bezala markatuta dagoen GRa jarraitu dugu. La Güelga errekarra jaitsi ondoren, guk Parres artegira doan bidea hartu dugu. Bestela, lehenago har daiteke ezkerrean Braña Redonda eta Vega Espinesetik igaro ondoren, La Muda lepora irteteko. Guk, bi artegi hauek ezkerrean utzi ditugu, eta Parresetik igaro ondoren, GRa utzi (GRa hemendik Arnaedo eta Vega Maorerantz doa) eta la Vere-



Camplengo Viejo.

da el Mazotik atera gara, La Muda lepora hain zuzen ere. Bide honetan, orain mugari batzuk ere agertzen dira noiz behinka, eta toki batzuetan "armatuta" ere badago.

Bidezidorrak jarraituz, Camplengo la Cueva artegira heldu gara, nahiz eta derrigorrezkoa ez izan. Honen izena, bertan gaztak gordetze-ko kobazulotik dator. Hemendik, berehala igaro gara Camplengo Viejo artegira. Tontorra gure buruen gainean dago, baina oraindik 400 metro baino gehiagoko altuera garaiera geratzen zaigu eta ez daukagu erreferentzia zehatzik. Intuizioari kasu eginez, gure aurrean eta gailurraren eskuinean dagoen leporako bidea hartu dugu. Hemen, elurra zapaltzen hasi gara, baina ez digu oztopo handirik sortu.

Medio lepora heldu eta begi-bistan daukagun paisaia izugarria da: Cornióneko gailur gehienak, erabat elurtuta, eta Caresaren beste aldean, Cerredo-Cabrones eta Erdiko mendilerroko beste asko, hauek ere zuriz jantzi-ta. Hemendik gora bizimodua atera beharko dugu. Hasieran elur eta belar artean, ondoren elurra eta bukaeran, harkaitz eta elur artean eskuak dezente erabiliz, ertzerantz irteera lortu dugu, eta hala, gailurreko pioleta ikustera. Azken metroak ertzetik egin ditugu, oso adi, elurrez estalitako harkaitzetatik. Jascal tontorrean gaude, bakar-bakarrik eta izugarritzko ikuspegia alde guztietara. Hemendik, Cabezo Lleroso ere bertan ikusi dugu. Guztira 4 ordu kostatu zaigu tontorrera arte igotzea.

Zerbait jan eta edan ostean, jaisteko aukerak aztertzen pasa dugu ordu erdi bat. Azkenean, ipar aldera jaistea erabaki dugu eta elurra badago ere, ekiditea posible dela dirudi. Horrela ba, harkaitzak baliatu ditugu beherantz egiteko. Kontu handiz ibili behar dugu elurra ez zapaltzeko, gogorra baitago. Poliki poliki lortu dugu zati zailena jaistea, eta gero bai, elurra baliatu dugu azkarrago jaisteko Jascal haranera. Gero, abereen bidezidorrek La Beyuga artegirantz eramanez gaituzte. Hau, Peña Ruanaren hormen azpian babesten da. Hemendik, Cuesta Coriscada deitzen den Jascal-go hegoaldea zeharkatuko dugu, berriz Camplengora irteteko. Orain, igoerako bidean gaude, eta ezagutzen dugunez, atsedena hartu dugu jan eta edateko. Hortik behera, igotzeko erabili dugun bide berdina jarraitu dugu, La Muda lepoa, Parres, Belbín eta Ercina lakura arte.

FITXA TEKNIKOA

ABIAPUNTUA: Ercina lakua.

DESNIBELA: 650 m. Baina metatua askoz handiagoa da, igoera-jaitsiera jarraituak baitaude.

ZAILTASUNA: Ez da zaila, baina beti ere baldintza egokietan eta behe-lainorik gabe egitea komeni. Camplengotik gora ez dago bide markaturik eta intuizioa erabili behar da. Guk, goiko zati hau erdi elurtuta aurkitu genuen.

DENBORA: 3-4 ordu igotzeko eta 3 bat jaisteko.



● EL CUETON (1651m)

INGUANZO ETA FOZ DEL HOME MUERTOTIK.

Gehienetan bezala, bukatzeko hirukoteko mendi txikiena geratzen zaigu, baina interes izugarria daukagu Foz del Home Muerto eza-gutzeko. Izenak berak ere akuilatu egiten gaitu, eta aurretik ikusi ditugun erreportajeek areagotu egin dute gure gogoia. Horrela bada, guretzat ezezaguna den Inguanzo herritik planteatu dugu irteera, ibilaldi zirkularra egiteko aukera dugularik. Cabezo Llerosoren kasuan bezala, Cabrales kontzejuaren gainean geratzen da Cuetón, eta beraz, irteera puntu gehiago ere badaude. Arenas de Cabrales bertatik irten daiteke edota Camarmeña edo Puente Poncebosetik ere. Azkenengo kasu honetan, Cabezo Llerosotik jais-teko erabili dugun Bobias kanala igo eta Ondón artegitik igaro ondoren, gailurrera igotzen da.

Larunbata da eta goizeko 8ak dira Inguanzo herri dotorean. Begi-bistan daukagu zeharkatu behar dugun Dobros mendilerroa eta dena ondo ateratzen bada jaitsieran erabiliko dugun El Escalón bidea ere. Herriaren goiko partetik atera gara, larre eta txabola arteak doan pista eroso bat jarraituz. Inguru hau La Ería da eta behean uzten ari garen herriaren ikuspegi ederrak eskaintzen dizkigu. Lepo batean pistak duen bidegurutzean, ezkerrera hartu dugu eta metro batzuk aurrerago, pista hau erabat ezkerrera doanean, pista utzi eta eskuinerantz hartu behar da, askotan galtzen den bidezidor bat jarraituz. Dena dela, erreferentzia bezala, Dobros mendilerroaren hormen azpira heldu behar da, beti ere, eskuinerako joera jarraituz. Ikuseremu onarekin ez dago arazorik.

la hormen azpira heltzen garenean, ondo nabaritzen den bidezidor estu bat aurkitu dugu, eta hemendik aurrera, hau jarraitu dugu Foz del Home Muerto zeharkatu arte. Laster heldu gara lepo txiki batera eta parean ikusi dugu arroila. Zintzur hau, Dobros mendikatea eta Cueto Lloeduren artean zabaltzen den Burdio ibaiak sortzen du. Toki askotan bidea "armatuta" dago, hemendik ibiltzen ziren (eta oraindik ere, baina gero eta gutxiago) artzainek goian dauden artegietara azkarrago heltzeko. Abereek berriz, beste bide luzeago bat jarraitzen dute. Hau da ibilaldi honen zatirik zailena, baina ez eskuak erabili behar direlako, zuloa beti oinen azpian dagoelako baizik, eta oso adi ibiltzeko tokia delako, batez ere bustita baldin badago. Amildegia kontutan hartzeko bezalakoa da eta tokia zirrargarria da.

La Ería, behean uzten ari garen herriaren ikuspegi ederrak eskaintzen dizkigu



Hasieran jaitsi egiten da apur bat, gero zeharkaldi dotorea, eta azkenik, igoera sigi-sagan. Burdio ibaiak eta hormak mugatutako Berodia herria ikusi dugu. Zintzurretik irten ondoren, haran zabalago batetik jarraitu dugu igotzen, eta Home Muerto izena duen iturria aurkitu dugu. Arratsaldean herrira jaitsi garenean, artzain bati galdetu diogu izen horri

buruz eta ez zekien oso argi, baina berak esan zigunez, lekuko batek bertako ur hotza edan ondoren, digestio eten baten ondorioz hil eta horregatik deitzen diote horrela. Las Camperasen gora egin eta Ternás artegira sartu gara. Mendiko "egoitza multzo" bat bezalakoa da, elkarri atxikitako txabola eta guzti. Zoritzarrez gehienak erorita daude, baina tokia



Aristara irteten elur artean. Atzean, paisaia espektakularra

oso ederra da. Hemen, garai batean, beheko herrietako familia asko egoten ziren beraien abereak zaindu eta gazta egiten. Orain, behiak bakarrik dabilta paraje hauetan. Atsedean txiki bat hartu dugu, eta gero, artegi guztia zeharkatu eta haran txikiaren bukaeran, ezkerrera hartu dugu. Hemen hasten da La Canal, 600 metroko altuera-garaiera duen kanal luzea.

Igotzen hasi eta berehala, meatze sarbide batekin egin dugu topo. Hemendik kobrea ateratzen zutela jakin dugu. Altuera igotzen jarraitu dugu kanalaren ezker aldeko hormen ondotik. Bidezidor arrastoak daude, animalienak noski, baina nahiko ondo igotzen da. Gainera horma hauetan, kobazuloak, txabolen aztarnak eta lore ugari ikusi ditugu. Kanalaren azkenen-

go zatia harri artean da, baina lepoa gero eta gertuago ikusi dugunez, animoz beteta ekin diogu. Harria hasten denean, gero jaitseran igaroko dugun Ostandi artegira doan bidezidorra daukagu ezkererantz. Baina gu orain gora goaz, Sanllago lepora. Heltzerakoan, sarrio taldeak ematen digu ongietorria eta honekin batera, aurrean daukagun ikuspegi zabal eta

PICOS DE EUROPA

ederrak erabat bete gaitu. 1575 metrora gaude eta ez zaigu asko falta ezkerrean geratzen den Cuetónen tontorrera heltzeko. Baina merezi du atseden txiki bat hartzea panoramaz gozatzeko. Aurrean, Urriellu eta Erdiko mendilerroko gailurrak Amuesa artegiaren gainean. Eskuinean, Peña Santa eta bere gailurreria guztia, mendi denak elurtuta.

Aurrera jarraitu behar dugu eta ezkerrean hartuz, Cuetónen gailurreria igo dugu. Hemendik, Ondón artegia daukagu gure oinpean eta Caresaren zintzurra askoz beharago. Gainera, tontorreko piolet erraldoia ere ikusi dugu eta ertz guztia jarraituz bertara heldu gara. Artzainek, honi, "lo alto de la Peña" deitzen diote. Beraiek "Cuetón" harkaitzezko mendi puska multzo guztiari deitzen diote. Eurentzat, garrantzitsuena ez da puntu garaiena, mendi guztia bere osota-



sunean baizik eta horregatik ez da hain garrantzitsua tontorraren izena. Mendizaleok, aldiz, puntu honen bila ibiltzen gara. Dena dela, pozik gaude Cornióneko hirugarren piolet honen ondoan. Lehenago lepotik ikusi dugun panoramikaz gain, Arenas de Cabrales eta kosta aldera dagoen ikuspegi ederra ere azaldu zaigu eta. Eguraldi bikaina dugu, ez dago behe-lainoen arrastorik; hemendik distantzia gutxira (Cares, Bulnes, Covadongako lakuak...) jendetza ibiliko da, baina zorionez badaude oraindik bakardadean ibiltzeko tokiak. Tontor hauetan piolet erraldoiak egon arren, ez dira oso ezagunak mendizaleentzat, altuera gutxi, horma handiak falta, itxura ikusgarrikeria ere ez, beraz Pikosetako "gourmetentzako" ibilbideak dira hauek.

Herrietako familia asko egoten ziren beraien abereak zaindu eta gazta egiten

Hala ere, beste bide erdia geratzen zaigu, ezezagunak baina interesanteak izango diren inguruetatik. Horrela ba, behearantzko bidea hartu dugu. Goiko haran txikia zeharkatu, eta Urriellu eta abarrei agur esan ondoren, Sanllago lepora jaitsi beharrean, eskuinera hartu dugu Ostandi artegira doan bidexkatik. Behean ikusi dugu artegia eta orain Cabezo Lleroso mendi puska aurrean daukagula, bertara doan bide gero eta nabarmenagoa jarraitu dugu. Ostandi, toki zoragarrian koka-

tuta dagoen artegi ederra da. Abereentzako putzua eta bi uraska daude, eta erdi eroritako txabola artean, espeleologok erabiltzen duten txabola berritu bat.

Hemendik behera bidea gero eta garbiagoa da, eta hasieran, igotzeko erabili dugun Canaletik oso gertu doa. Baina adi egon behar da, momentu batean 90°ko buelta egiten baitu eta Cabezo Lleroso gure bizkarrean utzita, aurrean ikusi dugun Corona mendirantz abiatu gara. Jarraitzen ari garen bidea, gero eta dotoreagoa da, artzainek asko erabili duten seinale. Horrela, beste artegi batera heldu arte, Dubrieyura hain zuzen ere. Hau, Cares eta Cabrales aldeari begira dago eta behatoki polita da, baina zoritxarrez txabola guztiak ditu erorita. Corona mendia zeharkatu dugu,



Dobros mendilerroa parean. Jetsiera ondo ikusten da.

Cares aldetik, zuloan Puente Poncebos eta Portuderako gailur eta kanal airosoak bistan ditugula. Badirudi duela gutxi ibili direla inguru hau garbitzen, beltza egoteaz gain, erre usaina ere sumatu daiteke.

Laster ikusi dugu hurrengo erreferentzia, Dobros mendilerroa eta Maneda lepoa eta artegia bere magalean. Bertara hurbiltzean, Dobrosen gailurrerriara doan sedo ikusgarri bat ikusi dugu, hortik igotzea posible izango ote den komentatuz. Gaur ez gara hortik joan, baina beste baterako aukera polita izan daiteke. Maneda lepora heldu (hemendik zuzenean jaitsi daiteke Cares ibaira) eta ezkererantz jo dugu Dobros mendilerroa zeharkatzeko Busnuevo langaren bila. Berehala ikusi dugu eta hara goaz. Atea igaro eta gure abiapuntua, In-

guanzo eta Cabraleseko herriak ditugu parean. Honen babesean atsedena hartu dugu, geratzen zaiguna jadanik garbi ikusten dugulako.

Baina oraindik beste tarte ikusgarri bat daukagu, El Escalón deitzen den bidea hain zuzen ere. Aurrean dugun bertikaltasuna gainditzeko, bihurtune ugari egiten dituen meatzaritarako bide dotorea. Ingeniaritza lan bikaina. Estua da, eta toki batzuetan kablea dago baranda modura, baina oso ondo jaisten da. Hau bukatu ondoren, hormen azpian gaude eta bidezidorrak jarraituz, goizean erabili dugun pista atera gara, lehen pista utzi dugun toki berberera. Orain pista jarraitzea baino besterik ez zaigu geratzen Inguanzora jaisteko. Pistan goazela, gorantz datorren artzain batekin egin dugu topo. Hitz egiteko gogoa dauka eta gustu-

ra egon gara berarekin elkarriketan. Nahiz eta larunbata izan, behiak hartu eta Ternás artegi ingurura eraman behar ditu arratsaldean. Beste artzain batzuk bezala, hau ere kexati da otsoek egiten dituzten kalteei buruz. Asko dabiltzala eta bi egun lehenago, beste artzain bat Semuñón artegian zegoela, gauean lau otso uxatzen egon omen zen, txekor bat erasotzen saiatu ziren eta. Hauenak bai istorio erreal eta gordinak!

FITXA TEKNIKOA

ABIAPUNTUA: Inguanzo.

DESNIBELA: Inguanzo 325 metrora dago eta Cuetónek 1651 m ditu. Beraz, 1325 metroko desnibela.

ZAILTASUNA: Teknikoki ez da zaila, baina kontu handiz ibili behar da Foz del Home Muerto zeharkatzerakoan. Hor ezin da estropozurik egin.

DENBORA: 7-8 ordu, lasai ibiliz, paisaiatz gozatzen.